

## ALDI IRAGANKORREKO IKASTAROAK BLOKE KOMUNARI BURUZKO JARRAIBIDEAK

- Kirol-federazioa da entrenatzaile ikastaro osoaren sustatzailea.
- Federazioak ikastetxe batekin adostu behar du bere ikastaroko bloke komuna ematea. EAEn, gaur egun, bi dira aldi iragankorreko entrenatzaile ikastaroei dagokien bloke komuna emateko baimena duten ikastetxeak:
  - o Kirolene (Durango, publikoa): 946550743
  - o Harrobia (Bilbo, pribatua): 944724366

*\* Federazioak beste erkidego batzuetako ikastetxeekin adostu dezake bloke komuna ematea. Kasu horretan, azterketak presentzialak direnez beti (baita urruneko prestakuntzetan ere), ikasleek ikastetxearen instalazioak dauden erkidegoraino joan beharko dute.*
- Akordioaren baldintzak erakunde bien artean (federazioa eta ikastetxea) ezarriko dira: datak, ordutegiak, tokia, prezioak, ordainketak, agirien izapidetzea...
- **Ikasleak federazioak eskaintzen duen bloke komunean matrikulatzea gomendatzen da.** Edonola ere:
  - a) Lehenago LOE bloke komun bat egin duten pertsonak ez dute ikastaroko bloke komunean matrikulatu beharko; gainditu izanaren ikasketa-ziurtagiria federazioari bidali besterik ez dute egin beharko (bloke komuna berbera da aldi iragankorreko kirol-modalitate guztientzat). LOE bloke komuna:
    - o 2011. urtearen ondorengo aldi iragankorreko modalitate baten bloke komuna (EDU/3186/2010 edo ECD/158/2014 Agindua).
    - o Erregimen bereziko (hezkuntza) modalitate hauen bloke komuna: bela, kirol-urpekaritza, hipika, espeleologia, judoa eta defentsa pertsonala, esgrima, salbamendua eta sorospena. Baita atletismoa eta saskibaloia ere urte jakin batetik aurrera (2015 edo 2016, kasuen arabera).
  - b) Matrikulazio partzialerako aukera dagoenez gero, ikasleek, hala nahi badute, ikastaroko bloke komunean **ez** matrikulatzeko aukera izango dute eta, kirol-espezialitate horretako edo beste bateko beste federazio batek eskaintzen duen ikastaro batean matrikulatzea, edo beste bloke komunaren batean ez matrikulatzea hautatu ahalko dute. Kasu horretan, ikasleak:
    - o Diploma eskuratzeari begira, praktikaldia amaitu aurretik, beste ikastaro batean egindako bloke komunaren ikasketa-ziurtagiria (fotokopia konpultsatua) bidali beharko dio kirol-federazioari.
    - o Matrikulatu ez bada edo federazioari ziurtagiria aurkeztu ez badio, ikaslea bloke komunean “Matrikulatu gabe” geratuko da ikastaroaren espedientean.

- Etorkizunean diploma eskuratu ahal izateko, ikasleak bloke komuna gainditu beharko du ikastaro berrian.
- Gainditutako arloak ez dira “iraungitzen” ikastaro berriari begira (kirol-modalitatean araudia aldatu ezean).

**Gogoan hartu behar da ikasleek, praktikaldia egin ahal izateko, berariazko blokea osorik gaindituta izan ez ezik, ikastaroko bloke komunean matrikulatuta egon beharko dutela, edo federazioari beste ikastaro baten bloke komunean matrikulatuta egotearen edo lehenago gainditu izanaren ziurtagiria (jatorrizkoa edo konpultsatua) aurkeztu. Bestela, ezingo diote praktikaldiari ekin.**

- Konbalidazioak eskuratzen dituztenek dagozkien arloetan ere matrikulatu behar dute. Federazioak eta ikastetxeak baldintza ekonomikoak eta eskaera eta izapideak egitekoak adostuko dituzte.
- **Federazioek ahalbidetu egin behar diete beste kirol-espezialitateetako ikasleei euren ikastaroen bloke komunetan matrikulatzea, plaza librerik egonez gero.** Gainerako ikasleek bezala dagoen ordainketa egin beharko diote federazioari eta ikastaroan sartzeko baldintza orokorrak eta berariazkoak frogatu beharko dituzte. Berariazko baldintzen kasuan, sarrera-proba gainditu izanaren edo bere kirol-espezialitaterako eta mailarako eskatzen den merituaren ziurtagiria (jatorrizkoa edo konpultsatua) aurkeztu beharko dute.
- Amaieran Kirol eskolari bidali behar zaizkion ikastaroaren ebaluazio-agiriei dagokienez:
  - Bloke komunaren aktetan (dagoen ikastetxeak egingo dituzten aktok) ikastaroko bloke komunean matrikulatutako ikasleak baino ez dira agertuko.
  - Bloke komuna beste ikastaro batean egin duten ikasleen kasuan, ez dira agertuko ikastaroko bloke komunaren aktetan eta egindako ikastaroari dagokion bloke komuna gainditu izanaren ikasketa-ziurtagiria (fotokopia konpultsatua) erantsi besterik ez da egin beharko.